



...HORI DESKRIBATZEN SAIATUKO NAIZ: BI MUNDU USTEZ PARALELO, ETENGABE NOLA GURUTZATZEN DIREN

Matematikan eta bertsolaritzan berdintasun egoerarik ikusten ote dudan, bizi izan ote dudan. Gauzak azkar edo poliki aldatzen ari diren, aldatzen ari badira. Etor-kizuna argi edo ilun ikusten ote dudan. Ez dira galdera errazak, eta horri buruz idazteko eskatu didate.

Bi mundu aparte dira jendearen gehien-goarentzat. Oso aparte, esango nuke. Bertso munduan harritu egiten dira matematikaria ere banaizela jakitean, eta alderantziz. Bi mundu paralelo gehienentzat, egunero gurutzatzen diren bi mundu niretzat. Eta galderak erantzute aldera, edo erantzun ez, baina gutxienez nire burua argitze aldera, hori deskribatzen saiatuko naiz: bi mundu ustez paralelo, etengabe nola gurutzatzen diren. Bertso mundukoagoak zaretenontzat, bi munduetako bakoitzerako bertso bana kantatu ordez, baten lerro bakoitiak eta bestearen bikoitiak bertso bakarrean kantatu eta kontatuko dizkizuet.

Gizonen mundua izan da bertsolaritzarena. Hasi matematikari ospetsuen izenak botatzen eta ez zaizue emakume izenik aterako: Pitagoras, Txirrita, Gauss, Lazkao Txiki, Riemann, Xalbador... Emakume bertsolarien izenak bilatu egin behar dira, ez dira nahi gabe aurkitzen: Plazida Otaño, Emmy Noether, Mikaela Elizegi, Sofia Kovalevskaya... Hauek izena eta abizena behar dituzte, ezizenen mundua ere gizonentzat erreserbatu zuten, nonbait.

Beharbada iruditeria hori zelako, karre-ran hasi nintzenean gehiengo mutilak izango zirela espero nuen. Baina gure bertso eskolan, gure belaunaldian, neskak izan ginen gehiengo. Ez karreraren soilik, eskolarteko txapelketetan

ere gure belaunaldiko gehienak emakumeak ginen: Oihana, Sheila, Ainhoa, Maria, Alejandra, Rachel, Sukran, Carolina, Noelia, Maritania... Doktorego tesia egiterakoan ere, talde teoriar genbiltzan gure adineko gehienak emakumeak ginen: Itxaso, Arrate, Maddalen, Miren, Kristiñe, Maindi, Izar, Garazi, Alazne...

Pentsatu nuen beharbada ni nengoela ekibokatuta. Gizonezko mundu bat zenaren ideia zaharkituta zegoela, dagoeneko parekide zen mundu bat zela hura. Edo are, emakumeona, akaso. Nik inguruan hori ikusten nuen. Baina denbora pasatzen da, eta badoaz hasierako zerrendako izenak difuminatzen. Ez beharbada zure iruditerian, baina bai jendearenean. Batzuek utzi egiten dute, besteek distanziaz hartu, beste askok hor jarraitzen dute, baina lehen baino ikustezi-nago. Edo hori da zuk daukazun inpresioa, gutxienez.

Apurka ohartzen zara kanpotik miresmenez begiratzen zenuen mundu hura noraino den epikoa. Halakok gaupasaz irabazi zuen finalerdi bat behin, beste hauek goizeko ordu biak arte aritzen ziren bulegoan hipotesiak eztabaidatzen. Bertso afari hartan hiru orduz jardun zuten etenik gabe bertsoan, urtebetean hamar artikulutik gora publikatu eta sei kongresutara gonbidatu dute. Honek haurra besotan idatzi zuen doktorego tesia, hau hona eta hara joaten da txapelketa prestatzeko. Lau txapel, bi ERC proiektu, zortzi final, hiru Annals... Beharbada ekipotasun horrek harrapatu zintuen bere momentuan. Baina zu ez zara zure bizipenak epikaz kontatu zale, eta ez dakizu orduan tokirik izango ote duzun bertan.

Epikoa ez ezik, lehiakorra da. Horrek ere erakarriko zintuen, agian. Baina kanpotik ematen zuena baino are lehiakorragoa da. Tripak ikusten dizkiozunean, zu zaudenean tripetan, ukazina da hori. Kongresu batera zoaz eta entzuten dituzu elkarrizketak honi eta hari buruz: "hau oso ondo dabil



plazan, asko du esateko, ikusten zaio lana eginda dagoela". Eta pentsatzen duzu zuri buruz zer esango ote duten. Esango ote duten zuri buruz zerbait. Bertso saio bat amaitzen da eta jendearen ahotan "honek halakorekin demostratu duen teorema hau oso sakona da, eta beste honekin ere ibili zen lanean, uste dut postdoc bat eman diotela halako unibertsitatetan holakorekin lan egiteko" bezalakoak aditzen dituzu. Eta ez zaizkizu hala esaten ari, baina ulertzen duzu esan nahi dizutela zuk ere hobe zenukeela bide horri segi. Zu ere laster difuminatuko zarela, bestela.

Eta mundu honetan segi nahi baduzu ezin zara difuminatu. Mundu honetan bizirauteko beharrezkoa da jendea zutaz gogoratzea; bertso saio bat lotzen ari direnean, kongresu baterako hizlarien zerrenda osatuko dutenean. Eta zutaz gogora daitezen hor egon behar duzu. Desagertzea arrisku bat da. Horregatik nonbaiten elkarrizketa bat eskaintzen badizute baietz esango duzu, hitzaldi bat eman badezakezu nonbait, ez galdu aukera. Trenak ez dira bi aldiz pasatzen, eta zuk hartzen ez duzuna beste batek hartuko du.

Ez da soilik datozkizun trenak galdu ezin dituzunaren sentsazioa, beste gauza batzuk sakrifikatu beharra ere hor dago. Mundu hau lehen-tasun puntu batekin bizi ezean ez zara hain mundu honetako izango. Ez badituzu asteburuak saioz saio errepidean pasako, ez bazauz bi urte atzerrian pasatzeko prest, ez bazoz txapelketara, ez baduzu zure problemaren ebazpenean astebururik sartu nahi... Zuk ikusi, baina beste batzuk prest daude. Eta edo oso ona zara, edo desagertzeko boletok erosten ari zara.

Ez desagertzeak, baina, hori dakar. Esposizio etengabea. Oholtzan jartzen duzu zure gorputza, hainbat jenderen aurrean zure teorema azaltzen. Galdetzen dizute ideiarik ere ez daukazu beste teorema bati buruz, eta dakizuna baino gehiago bazeneki bezala hasten zara kantuan homeita hamar segunduan. Bitartean zuri begira daude hainbat aditu eta aditu usteko. Badakizu gero epai zaitzaketela, goraiatu ere bai. Edo akaso okerre dena, indiferentzia ere jaso dezakezu bueltan.

Baina gehienetan jendea ez da isilik geratzen. Eta aholkuak ematen dizkizu zure jardunari buruz, edozein motatako aholkuak. Ez erlaxatzeko, besteak denbora galdu gabe ari direla artikuluak publikatzen eta pilak jarri behar dituzula. Ofiziotan ondo, baina bakarka doinu horretan akaso ezetz, probatzeko beste zerbait. Hobeto saldu behar dituzula zure emaitzak hitzaldietan, hitz egiteko ozenago. Ingeles hori txapelketarako ondo, baina coffee-break-ean inork ez zaituela serio hartuko euskara batuan bazabiltza... Eta zeuk egin behar duzu digestioa ahal duzun modurik onenean. Gehienetan entzungor, baina entzundakoak entzunda.

Mundu zabala ematen du, baina denok ezagutzen dugu elkar. Eta izenek pisu handia hartzen dute. Askotan zer baino nork egiten duen da garrantzitsua. Edo nork norekin. Edo nork dion nori buruz zer. Halakok dio inoiz izan duen ikaslerik azkarrena hura izan zela, bera izan dela harritu duen ikasle bakarretakoa. Azkarra izan behar da ba, hura harritzeko. Honek esaten du aurretik Euskal Herriko hau eta beste sartuko direla. Ondoen beraiek dabilzala plazan. Tira, ba horrek hala badio zoezerengatik izango da.

Erasoak eta erasotzaileak daude. Bulegoan ikasleren bati eskua sartu izan diona, bertso afari osteko parrandan kantukideari bularrak ikutu zizkiona. Eta hortik gora, eta hortik behera. Baldin eta erasoak ezerean gorabehera neur badaitezke. Emakumeon artean badakigu gutxi gorabehera zein diren. Elkarri kontatu eta sinisten diogu. Badago enpatia eta konfiantza sare zabal bat, eta ez da gutxi. Baina erasotzaileak hor daude, eta askotan ez dakigu beraiekin zer egin. Batzuetan izenen pisua da oztopo, besteetan besterik gabe, gizarte bezala ere ez dakigula oso ondo zer egin. Hori bai, protokoloak diseinatzea gure bizkar geratzen da gehienetan. Eta diseinatuta ere, gero beteko diren ez dago beti garbi, eta nekeak gain ere hartzen digu askotan.

Erabaki eta botereguneak identifikatzea ez da beti erraza. Batzordeak daude eta egituraketa bat badago, baina ez dago garbi erabakiak non hartzen diren sarri. Aldaketa hau egitea pentsatu dugu, baina badaezpada halako eta holakori galdetuko diegu ea ze iritzi duten. Izenen pisua, berriz. Edo hau egitera gindoazen, baina holakok nahiago du beste hau egiten badugu,



eta beraz, beste hori egingo da azkenean. Hau esan genuen, bai, baina gero osteko afarian beste hau ere bururatu zitzaigun. Bihar berarekin naiz eta galdetuko diot ea zer uste duen... Eta horrela difuminatzen dira, pertsonak ez ezik, botereguneak ere.

Batzuek pentsatuko duzue deskribatu dudan gehienak ez digula emakumeoi bakarrik eragiten. Eta ez zaudete oker. Emakumeoi eragiten digu bereziki eta bortitzen, uste dut soberan dagoela zergatik azaltzea. Baina ez digu emakumeoi bakarrik eragiten. Eta aldatuko bagenitu, aldatuko balira, askorentzako litzateke mundu eroso eta sanoagoa. Baina aldaketak beldurra ematen digu. Ohartzerako guk ere badaukagulako leku bat, pisu bat, izen bat, ohitura batzuk. Eta irabazteko asko izan genezakeen arren, galtzeko gehiago daukagula transmititu digu mundu honek.

Beharbada horregatik ematen dira azkarrago eskaparateko aldaketak sakonekoak baino. Emakumeok presentzia handiagoa daukagu egun. Hartu plazako agenda, hartu azken txapelketak. Hartu kongresuetako izenak, sailtako ikerketa taldeen osaketak. Presentzia handitu egin da, eta esperantzarako izpi izan liteke hori. Gure presentzia hutsak, gure diskurtsoek eta gure jarrerak aldaketak ekarri dituzte. Baina joko arau asko lehengo berak dira oraindik. Gizonek jokatzen zuten jokora jokatu dezakegula demostratu dugu. Orain arauak aldatzeko gai ere bagarela demostratzeko garaia da.



